

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

1806

249/1995 DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, ekonomia gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzeari buruzkoa.

1981. urtean sortu zen lehenengoz Ekonomia-Batzordea, «gizarte-ekonomiaren alorrean aritzezko ekin-tzapidea Jaurlaritzako Sail bereziei dagokienez, norabi-deok eta erabakiak gertatzeko, alor-politikaren egitas-moa egiteko eta, orohar, Sail batzuen bateango zudu diren arazoak aztertzeke, eta bai Jaurlaritzaren azterpe-nak errazagotzeko arazoak aurrez ikuskatzeak ere, beha-rrezko antolakideketa bat egitea komenigarri gertatzen da» eta.

Batzorde horrek, nahiz eta ekonomiarako zela adie-razi bere izenean, iharduteko irizpide orokorrak finka-tzen zituen gizarte, industria, funtzio publiko, aurre-kontu eta beste gai batzuetarako, baina ez zuen inolako gaitasunik eragile izateko, aipatutako gai horiei buruz proposamenak baino ez baitzizkion aurkezten Jaurlari-tzaren Kontseiluari. Organo horri dekretu harekin eman zitzaion taxuketa hura eraginkorra izan zen une hartan bizi izan zen egoerari erantzuteko, bai garaia eta bai administrazioa kontuan hartzen badira. Orduan, gutxi ziren eskualdatutako eskuduntzak eta zerbitzuak, funtzio publikoa hastepenetan eta arautu gabe zegoen, aurrekontuak urriak ziren eta Jaurlaritzaren taxuketa txikia; beraz, erraza zen maila horretan erabakiak har-tzea.

Gerora, 1985. urtean, hain zuzen aurreko urtean Euskal Herrialorraren Egitamuketaren Batzordea sortu zelako, Epe Ertain eta Luzerako Ekonomia Plana baka-rrik egiteko sortu ere, aldatu egin ziren Ekonomia-Ba-tzordearen eta Egitamuketa-Batzordearen egitekoak eta osatze-modua, «Autonomia Estatuaren 10.25. atalean aipatutako plangintza prozesua indartu eta bultzatzeko, Batzorde horri eskualdatzen baitzaizko Egitamuketaren Batzordeak bere dituen egitekoak, Jaurlaritzaren sailen egitura berrira egokituz».

Ekonomia-Batzordearen egiteko berri horiekin eten egin zen bere hasierako taxuketa. Ondorioz, ordezko eginkizunik gabeko batzorde bihurtu zen, hasierako Ekonomia-Batzordeari Jaurlaritzaren erabakietarako egotzi zitzaizkion helburu orokorrak eta ordezkoak alde batera utzita. Hala, «de iure» gaurdaino iraun du zuzenketa txiki batzuk eginda, hain zuzen plangintza taldeak aipatzen zituzten dekretu arautzaileko atalak ezabazetik eta plangintza prozesuari emandako norabi-de berriak ezartzetik eratorritako zuzenketa.

Ekonomia-Batzordearen egitekoak, betebeharrak eta iharduera, hala ere, bera arautzeko emandako dekretuan jarritako bideetatik barik, oso bestelakoetatik joan dira «de facto». Hala, izan ere, orain daukan osakera ez da egokia, eta sortu zenean ezarri zitzaizkion helburuak

Disposiciones Generales

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1806

DECRETO 249/1995, de 25 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

La Comisión Económica surgió por primera vez en el año 1981 dado que «la diversidad de Departamentos del Gobierno cuya actuación incidía en el área socioeco-nómica aconsejaba establecer la debida coordinación para la elaboración de directrices y resoluciones, la pro-gramación de la política sectorial, y, en general, el exa-men de asuntos de interés a varios Departamentos, así como la preparación y estudio previo de los problemas con objeto de facilitar las deliberaciones del Gobierno».

Se trataba de una Comisión que aunque recibiese el calificativo de Económica fijaba criterios generales de actuación en materias tales como política social, indus-trial, de función pública, presupuestaria, etc...sin nin-guna capacidad ejecutiva y que sólo elevaba propuestas al Consejo de Gobierno en las materias que se enumera-ban. Esta regulación, con la configuración que de este órgano se hacía, respondió con eficacia al momento his-tórico-administrativo que se vivía, el cual, caracterizado por la escasez de competencias y servicios transferidos, una función pública incipiente y no regulada, lo exiguo de los presupuestos y la configuración del ejecutivo, facilitaba la toma de decisiones en este nivel de deci-sión.

Con posterioridad, en el año 1985, y merced a la creación el año anterior del Comité de Planificación del Sector Público Vasco, cuyo único trabajo en la práctica era el de elaborar el Plan Económico a Medio y Largo Plazo, se procedió a la modificación de la composición y funciones de la Comisión Económica y de los grupos de planificación «con el fin de potenciar y dinamizar el proceso de planificación a que se refiere el artículo 10.25 del Estatuto de Autonomía transfiriéndole a esta Comisión las funciones específicas del Comité de Plani-ficación y adaptando la misma a la nueva estructura departamental del Gobierno».

Esta nueva funcionalidad de la Comisión Económica truncó la configuración inicial de la misma y, converti-da en una Comisión no de carácter delegado ni con las finalidades totalizadoras y auxiliares de las decisiones del ejecutivo que podían predicarse de la inicial Comi-sión Económica, ha perdurado «de iure» hasta hoy en día con mínimas correcciones siendo éstas las devenidas de la reorientación dada al proceso planificador y de la derogación de los artículos que en su Decreto regulador aludían a los grupos Funcionales de Planificación.

«De facto», sin embargo, las funciones, quehaceres y funcionamiento de la Comisión Económica han ido por derroteros bien distintos a los que la norma de su regu-lación marcaba. En efecto, ni la composición actual es la apropiada, ni los objetos para los que se creó son los

ere, ez dira praktikan agertzen den moduan ezar dakizkiokeen bakarrak. Beraz, ezinbestekoa da Ekonomia-Batzordea arautzen duen arautegia sakonean aztertzea, organo horri indar berriak emateko. Egia esan, funts-funtsezkoa da organo horrek zuzen ihardutea, batetik, Jaurlaritzaren estrategia lana errazteko, bestetik, Jaurlaritzak bere egintzarako ia guztiz zeharkakoak dituen arloetatik Jaurlaritza bera arintzeko eta, azkenik, sailentzako interes amankomuna duten arloetan irizpideak biltzeko elkargune izateko.

Ildo horretatik, Ekonomia-Batzorde berria arautzerakoan ezin dira alde batera utzi jarraian azalduko diren hiru inguruabar zehatzak, ez eta zeharka agertzen den beste egoera bat ere, azken batean hori ere eragilea delako.

Lehenengo eta behin, Euskal Herri Administrazioa hobetu eta arrazionalizatzeko prozesuan sartu behar da arautegi berri hori. Zehatz esanda, Eusko Jaurlaritzaren eta Autonomi Elkartearen Administrazioaren antolaketaren egitura berritzeko neurrien barruan (antolaketa berria, Eusko Jaurlaritzaren egoera berrirako). «Gaur egun Ekonomia-Batzordeak duen osakera eta iharduera aztertze» aholkua ematen da han.

Bigarren puntu lez, 1995-98 legegintzaldirako koalizio Akordioan esaten denez «Ekonomia-Batzordearen osakera eta iharduera aztertu egingo dira».

Azkenik, eta Ekonomia-Batzorde berriari dagozkion egitekoak zeintzuk diren sakonduz, nahiz eta Jaurlaritzaren Kontseiluko gairik gehienak ekonomiakoak izan, zuzenago izango litzateke Ekonomia-Batzordeari bi modutako iharduerak emanaz eratu behar dela pentsatuko balitz. Egia esan, Ekonomia-Batzorde berria, proposamenak aurkezteaz gain, eragilea izan beharko litzateke. Aldi berean, sailen interes amankomuneko gaiak aztertu, proposatu eta, hala izatera, onartuko litzuzke, nahiz eta ekonomiako gaiak ez izan, baina zenbait saili dagozkienak izategatik garrantzia hartzen duten neurrian.

Ondorioz, lehendakariordearen proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko apirilaren 25ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala. – Sorrera

1.– Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordea sortzen da Jaurlaritzaren barruan. Dekretu honetan ezartzen dira bere osakera eta egitekoak.

2.– Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 22. atalaren babespean sortzen da ekonomi gaietarako Ordezko Batzordea. Eta Jaurlaritzaren ekonomia egintzaren oinarritzako organo lez eratzen da, arau honetan finkatutako moduan.

2. atala. – Osakera

1.– Honako kide hauek izango dira ekonomia gaietarako Ordezko Batzordea osatuko dutenak:

a) Jaurlaritzaren lehendakaria; bera izango da buru.

que en la práctica se manifiestan como los únicos atribuibles. Resulta necesaria, pues, una revisión en profundidad de la norma reguladora de la Comisión Económica que devuelva renovado vigor a este órgano cuyo correcto funcionamiento se juzga capital para facilitar la labor estratégica del Gobierno, descargar de aspectos eminentemente colaterales a la acción del ejecutivo y ser el lugar de encuentro de criterios sectoriales de común interés para los Departamentos.

En este sentido, la normación de la nueva Comisión Económica no puede ser ajena a tres circunstancias concretas que se pasan a exponer y a una situación colateral pero influyente que, asimismo, se aflora.

En primer lugar, hay que incardinar esta nueva norma en el proceso de mejora y racionalización de la Administración Pública Vasca y más en concreto en las medidas para renovar la estructura organizativa del Gobierno y la Administración del País Vasco (una nueva organización para una nueva etapa del Gobierno Vasco). Allí se recomienda «proceder a revisar la composición y funcionamiento de la Comisión Económica en su actual configuración».

En segundo lugar, en el Acuerdo de coalición para la legislatura 1995-98 se establece que «se procederá a revisar la composición y funcionamiento de la Comisión Económica».

Por último, y ahondando en el aspecto funcional de esta nueva Comisión Económica, ha de decirse que aunque la mayoría de los asuntos de Consejo de Gobierno son temas económicos, es posible que una concepción más correcta de la Comisión Económica deba construirse sobre bases de funcionamiento duales. En efecto, ha de entenderse que una nueva Comisión Económica debe ser parte informante y parte ejecutiva. Al propio tiempo, podría abordar el estudio, propuesta de asuntos y aprobación, en su caso, de temas de interés común a los Departamentos aunque no sean temas tan económicos pero que por su importancia sean de proyección horizontal.

En su virtud, a propuesta del Vicepresidente, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión de 25 de abril de 1995,

DISPONGO

Artículo 1. – Creación

1.– Se crea, en el seno del Gobierno, la Comisión Delegada para asuntos económicos cuya composición y funciones se establecen en el presente Decreto.

2.– La Comisión Delegada para asuntos económicos se crea al amparo del artículo 22 de la Ley 7/1981, de Gobierno, y se constituye como el órgano básico de la acción económica del Gobierno en los términos de la presente norma.

Artículo 2. – Composición

1.– La Comisión Delegada para asuntos económicos estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Lehendakari que la presidirá.

b) Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua. Lehendakaria bileretara agertzen ez denean, lehendakariordeak hartuko du Batzordearen lehendakaritza.

c) Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua.

d) Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua.

e) Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua.

2.- Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordearen Idazkaritza Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak beteko du.

3.- Aurreko lerroaldietan aipatu eta ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeko kide direnez gain, beste sailburu batzuei ere bileretara joateko dei egingo zaie, beren sailtako gai bereziak edo Jaurlaritzaren interes orokorrekoak landu behar direnean. Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordearen lehendakariak eskatuta, hala-ber, Jaurlaritzako goi kargudunak eta Euskal Autonomi Elkarteko Erakundeen Administrazioa osatzen duten izakietako zuzendariak ere joan daitezke bileretara.

3. atala.- Egitekoak

Hauek dira ekonomia gaietarako Ordezko Batzordearen egitekoak:

a) Jaurlaritzak onartu behar dituen plan eta egitarauen oinarritzko alderdi ekonomiko eta estrategikoen azterlana egitea, gero Eusko Legebiltzarraren aurrean lege-egitasmo edo komunikazio lez eztabaidatu behar badira.

b) Ekonomiaren plangintzaren prozesua bultzatu eta jarraipena egitea, baita ekonomia planak eta horien garapena aurrez onartzea ere, nahiz eta gero Jaurlaritzak onartu beharrekoak izan.

c) Euskadiko Aurrekontu Errejimenari buruz indarrean dauden legezko xedapenen Bateratutako Testua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 1/1994 Legegitza Dekretuaren arabera (24.3, 58, 83, 87, 92.2, 94.1, 95.1, 97.3, 100.5, 101.1, 119.1 eta 120. atalak), eta aurrekontuei buruzko urteroko legeen arabera, batzordeari parte hartzeko agindu zaizkion alorretako aurrekontuetako eragiketak aztertu eta onartuko ditu, nahiz eta bidezkoa denean Jaurlaritzari aurkeztuko dizkion behin-betiko onarpenera emateko.

d) Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta ekonomian edo finantzetan eragina izan dezaten ekimenei buruz Jaurlaritzak duen irizpidea aztertu, analizatu eta proposatu du.

e) Euskal Herri Administrazioaren ogasun, ekonomia, antolaketa eta erreformarekin zerikusia duten gaien azterlana eta analisisa egingo du, Jaurlaritzaren egituraren sartzan diren sail guztien interes amankomunekoak badira edo berezi sail batzuetan eragina badute.

f) Lege maila duten arauetan egotzi zaiolako, bere eskuduntzakoa den beste edozein gai aztertu, landu, proposatu edo erabakiko du.

b) El Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública. En los casos de no asistencia del Lehendakari será el Vicepresidente quién ostentará la presidencia de la Comisión.

c) El Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

d) El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca.

e) El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

2.- La Secretaría de la Comisión Delegada para asuntos económicos será desempeñada por el Vicepresidente y Consejero de Hacienda y Administración Pública».

3.- Además de los miembros componentes de la Comisión Delegada para asuntos económicos a que se refieren los párrafos anteriores, serán convocados a sus reuniones otros Consejeros cuando aquella aborde temas específicos de sus correspondientes Departamentos o de interés general del Gobierno. Igualmente, y a instancia del Presidente de la Comisión Delegada para asuntos económicos, podrán asistir Altos Cargos del Gobierno y personal directivo de los Entes que componen la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3.- Funciones

Son funciones de la Comisión Delegada para asuntos económicos las siguientes:

a) Estudio de los aspectos económicos y estratégicos básicos de los Planes y Programas que deba aprobar el Gobierno y que hayan de tratarse ante el Parlamento Vasco sea como Proyecto de Ley sea como Comunicación.

b) Impulso y seguimiento del proceso de Planificación Económica y aprobación previa de los Planes económicos y su desarrollo, sin perjuicio de su aprobación ulterior por el Gobierno.

c) Estudio y aprobación, en su caso, de las operaciones presupuestarias en las que sea preceptiva su participación a tenor del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario de Euskadi (Arts. 24.3, 58, 83, 87, 92.2, 94.1, 95.1, 97.3, 100.5, 101.1, 119.1, y 120) y de las leyes anuales de presupuestos, sin perjuicio de su elevación al Gobierno para su aprobación definitiva cuando proceda.

d) Estudio, análisis y propuesta del criterio del Gobierno en relación a iniciativas en el Parlamento Vasco que tengan consecuencias de carácter económico o financiero.

e) Estudio y análisis de materias que, relativas a la Hacienda, Economía, organización y reforma de la Administración Pública Vasca, tengan un interés común a todos los Departamentos en que se estructura el Gobierno o de manera especial afecten a varios de ellos.

f) Examen, informe, propuesta o resolución en su caso, de cualquier otra cuestión que sea de su competencia por haberle sido asignada en normas con rango de ley.

g) Jaurlaritzak ordezkoan emandako beste edozein egiteko edo, bestela, Jaurlaritzak, lehendakariak edo lehendakariordeak aztertu eta lantzeko agintzen dizkiontenak. Ordezko lan hori dekretuz eman beharko zaio eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4. atala. - Iharduteko araubidea.

1.- Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeak berak onar ditzan barne arauetara eutsiz ihardungo du. Hori egin arte eta elkarren kontra ez daudenean, Jaurlaritzari buruzko Legearen 19tik 21. atalerartekoak ezarriko zaizkio Ordezko Batzorde horri.

2.- Batzorde teknikoak edo lan taldeak eratu ahal izango dira gai zehatz eta mehatz batzuetarako, sailen interes orokorrak hala eskatzen badu edo landu behar diren gaiak zailtasun edo azterketa teknikoak izan edo behar dituztenean edo ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeak bete beharreko egitekoak horrela eskatzen badute. Talde horietan Administrazio goi kargudunak parte hartu ahal izango dute.

3.- Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeak iharduteko beharrezko duen administrazio laguntza emango dio Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Bakarra. - Iraungi egiten da Ekonomia-Batzordea. Indarrean egon eta lege maila duten arauetan Ekonomia-Batzordeari egindako aipamenak, bada, ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

INDARGABETZE XEDAPENA

Bakarra. - Ekonomia-Batzordearen eta Egitamuketa-Batzordearen egitekoak eta osatze-modua aldatzen dituen irailaren 10eko 284/1985 Dekretua indargabetu egiten da. Dekretu honetan oharmandakoaren aurka dauden beste xedapen guztiak ere indargabetu egiten dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Gizarte-emendiotarako Borondatezko Erakundearen Legearen Araupidetza onartzen duen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren 68. ataleko lehenengo leerroaldiaren b) hizkia honela idatzita geldituko da:

«b) Ogasun eta Herri Administrazio Sailak gai joko dirusari finko nahiz aldakorreko baloretan».

Bigarrena. - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko apirilak 25.

Lehendakaria,

JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakariordea,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

g) Las demás que puedan serle delegadas por el Gobierno o que éste, el Lehendakari o el Vicepresidente sometan a su examen e informe. La Delegación aludida deberá hacerse por Decreto que habrá de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 4. - Régimen de funcionamiento

1.- La Comisión Delegada para asuntos económicos funcionará de acuerdo con las normas internas que ella misma apruebe. En tanto ello se dé y en lo que no las contradigan, serán de aplicación los artículos 19 a 21 de la Ley de Gobierno.

2.- Cuando el interés interdepartamental general, la complejidad o los requerimientos técnicos que demanden los asuntos a tratar o las funciones a realizar por la Comisión Delegada para asuntos económicos lo exija podrán constituirse Comisiones Técnicas o Grupos de Trabajo para asuntos concretos y determinados en cuya composición podrán participar Altos Cargos de la Administración.

3.- La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento prestará el apoyo administrativo necesario para el funcionamiento de la Comisión Delegada para asuntos económicos.

DISPOSICION ADICIONAL

Única. - Queda extinguida la Comisión Económica. Las referencias que la normativa en vigor y con rango de ley haga a la Comisión Económica deberán entenderse realizadas a la Comisión Delegada para asuntos económicos.

DISPOSICION DEROGATORIA

Única. - Queda derogado el Decreto 284/1985, de 10 de septiembre por el que se modifican las funciones y composición de la Comisión Económica y de los Grupos de Planificación, así como cualquier otra disposición que se oponga a lo previsto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - La letra b) del párrafo primero del artículo 68 del Decreto 87/1984, de 20 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de la ley sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria, queda redactado como sigue:

«b) En valores de renta fija o variable declarados aptos por el Departamento de Hacienda y Administración Pública».

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 1995.

El Lehendakari,

JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO

El Vicepresidente,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU